

## IDAZMAKINATIK IRAKURMAKINARA

Karlos del Olmo

### *Artemio Cruzen heriotza*

Carlos Fuentes

Literatura Unibertsala

Itzul.: Zuriñe Goti Artabe

Koldo Mitxelena zenak behinola iragarri zuen. Batzuek, halere, ez zuten sinetsi, baina bizitzan gauza guztiak legez, azkenean, jaio dira berriak. Jaio da, bai, itzultzaile belaunaldi berria. Hona hemen horren erakusgarri ederra: Zuriñe Goti Artabe bizkaitarra. Honako hau, gezurra dirudien arren, euskaratu duen lehenengo lana da. Gaztetasunak ematen dituen ausardia eta kemena lagun, narrazio eta itzulpen ezaugarri berezi-bereziak dituen nobela mardul kixotesko bati ekin dio. Eta, ezin ukatu, ederto jarri dio erramua paperezko eraikin honen teilatuari. Batuaz emanda dago nobela, baina han-hemenka bizkaieraren ukitu freskoak topatuko ditu irakurle esploratzaileak. Besterik ez aipatzearren, *Bera* deritzon pertsonaia izendatzeko aukeraturiko izenordea.

Eleberriak, teknika aldetik, garairako puntuazio berritzaile-berritzailea zerabilen. Itzultzaileak erantsi-kendu batzuk egin behar izan ditu euskaraz testua egosten errazago bihurtzearen. Jakina, jatorrizkoa parean izan barik, nekez jakingo du irakurleak norenak diren puntuazio baliabideok. Baina, aitortu beharra dago, jatorrizkoa baino gaitzago ez da gertatzen euskal bertsoa. Badakigu jakin jatorrizko eleberriak darabilen teknika dela eta nekez joango zaiona barneratuz irakurleari. Baina, azkenean, Zuriñek sarreran dioen moduan, puzzlearen piezek obra osoa eratuko digute.

Zer esan daiteke Karlos Fuentesen gainean? Mexikon jaio zen mundura 1928. urtean. Zuzenbidea eta ekonomia ikasitakoa. Diplomatikoa. Politikaria... Eta, batez ere, idazlea. Narratzaile oparoa. Kontalari mamitsua. Pertsona konprometitua. Abertzalea, nazionalista bere modura. Irakasle hainbat unibertsitatetan. Doktore *Honoris Causa*. Sari asko jasotakoa, Cervantes Saria barne. Kazetari grinatsua. Idazlanak hainbat hizkuntzara itzuliak ditu eta, ez bairik gabe, euskal irakurleak eskerrak eman behar dizkio Literatura Unibertsala bildumari horrelako lan gogoangarria euskaraz plazaratzearen.

Eleberrian indar handi moduko bat nabaritzen da, asmo iraultzaile halako bat, nazio baten jatorria azaldu eta ulertzeko guraria, herria eta populua esplikatze asmoa. Karlos Fuentesek bere egiten du Pablo Nerudaren esana: "idazle latinoamerikarrak herria lepoan hartuta daroa". Idazleak ahotsik ez dutenen ordez idatzi behar du. Hizkuntza eta irudimena ditu tresnatzat. Tresna izugarriak, irudimenik, hizkuntzarik ez duen gizarteak hondamendi hutsa baino ezagutuko ez duelako. Ezein eleberrik zeregine bikuna ei du Fuentesen iritzi: errealitatearen berri ematea eta errealitate berri bat sortzea. Horrela, Artemio Cruzek (inondik deitura sinbolikoa inon sinbolikorik bada) Mexiko berri bat eratuko digu benetakoaren berri eman ahala.

Eleberri honek, Fuentesen gainerako lanen antzera, herri globala tokian tokiko herrien aurrez aurre jartzen du. Zein bere alde on eta txarren jabe. Egitura gorabehera, ezin uka daiteke zinema eta literatura ederto batean uztartzen direla mexikar honen obretan. Beharbada, teknika itxuraz zail horren atzean, pelikula moduan ikusi beharreko zertzelada espresionista moduko batzuk baino ez daude. Zeren berri eman eta Fuentesek herri indigena, kolonial, barroko eta iraultzaile bat jartzen digu modernitatearen atean, joka, atzean azteken hondakinak, ondarea eta ondra dakartzala. Eta azteken atzean, segizioan, toltetekak, maia-kitxeak, totonakak, olmekak... Hiru mila urte historia eta istorio. Eta espainiar zapaltzaile eta usteko (?) zibilizazioak. Eta gringo nonahikoak.

Historia eta istorioa, bi-biak, testu dira. Azkenean, toki eta garai batzuei gagozkiela, istorioen testuak gaina hartzen dio historiaren testuari, herriaren gogoan historia literatura eginda baizik geratzen ez dela. Gainera, idazle batzuetan entseguaren eta fikzioaren arteko muga lausoa da, nahasia, ia mugarik ez egoterainokoa. Karlos Fuentes izan daiteke horren adibide argienetako bat. Eleberri batzuk soziologia, kultura tratatu bihurtzen dira. Hona hemen bat. Horra hor zergatik esan dugun Zuriñek lantegi eskerga hartu duela.

Egileak behin baino gehiagotan esan du nobela dela bide bakarra jazoeren muinean sakontzeko, lehenaldia errealagoa dela poesiaren ukitua erantsiz gero. Herriek ez omen lukete historiarik izango idazleok irudimena eta poesia erantsiko ez balizkiote. Joandakoa oroimen hutsa da, baina gurari bihurtzen

ere da, zelanbait. Nobelak, bestalde, herriaren, populuaren sentipenak azaltzeko bidea ematen du, historiak, giza zientzia den aldetik, egiterik ez duena.

Banakoaren patuak herriaren destinoarekin egiten du topo, topeka dihardute elkarren aurka, elkar ulertzen, maiatzen, gorrotatzen... Hori dena eleberriak baino ezin du egin, Karlos Fuentesek dioskunez. Hori guztia eman digu Zuriñek euskaraz. Nobela argal, anemikoak ez ei zaizkio gustatzen egileari. Aldean, potoloak, aberatsak, maitagarriak, jatunak... gurago ditu. Artemio Cruzena halakoxea da, eta, jakina, itzultzaileak, ondorioz, lagungarriren bat eman behar izan digu —inoiz ere behar beste eskertuko ez diogun arren— janari goxo bezain pisu horrek kalte egin ez diezagun. On egin dagizuela!